

Astigarraga

UZTA.—Aurten, ez bada arrika-dik urte ederren bat daizkegu; arto, illar, baberrun ta belarra ugari da; batez ere sagarra; orren aladi ederra nabarita etxe-zuloan egotea eziña da.

* * *

ITZEIKIZUNA.—Gustiz mamitsua egin zigun larunbat arratsean Donosti'n Zeletak, beronen barrua aspalditik nezaun alare lenengo ikusitakoan asko poztu nintzan; berandu zan eta Pantzeska Deunaren gurdiyan etxeratu biar gihälako ez nuan nai aña beraz itzegin.

* * *

AUTESKETA.—Aurten lenengoa burukatu gera Aberri alde. Autarkidunak lau abertzale gera; errian arlotienak. Aurka genitun Udala, Jaupari oro, idazkari, osalar eta gañera etxe edo lur au "neres" da esan lezaken guzia; alara 68 sartu genitun Zelaya'rentzat autarkontzian, eta guk dakigu inolai gelditu geran. Goyerrí aldeko batek galde-tzen dit: la zer gertatzen zen Isasondo'n aberzaliaren alde autarki bat bakarrik ez atzaltzeko.

Txadon Zaya.